

# Antzinara begira aurrera egiteko

Berririo natorkizu, irakurle maitea, oraingoan *Lekeitio, idatziazak eta irudiak* liburuaren bigarren liburukote, parkatu, liburuarekin.

Dietazaleen moduan ibili naiz, kilo batzuk galdu, horiek eta gehiago irabazi. Azkenean 300 orrialdetik gora eta txarraren, kanpoan utzita gustoko nuen materiala!

Horregatik azalpenak -sermoia ta katarrua, zenbat eta laburrago hobe- arindu egin ditut eta irudiei eta audioari, hau nobedadea, eman diet protagonismoa.

Estilo kontzeptista honek badu abantailarik, esaterako sarrera espartar honetan ez duzu nire kexarik, ez jadanik ezagutzen duzun azalpen amaiezinik irakurriko eta nik errepikatu beharko. Hanka-sartzeak ere, matematikoki behintzat, gutxitu egiten dira nahiz eta azken liburukote honetan, kostata baina, konturatu naizen euren enkantua dutela. Akaso damuek Velazquez handia txikitzen dute? Egon apur bat, baina Velazquezek damu horien bitartez akatsak zuzendu nahi izan bazituen ez zituen gustoko akatsak..., eskerak leku faltan inora ez garamatzen digresio honekin amaitu behar dudana!

Eskerrak emateko ere estilo beragaz jarraituz, gogotik modan dagoen whatsapp era erabiliko dut, ez dut atzean geratu nahi eta, gogoratu **atzera begira (baina) aurrera egiteko.**



*Gabikatarrei,  
izan zirelako gara, garelako izango dira*



Ibon Iturbe, Sorkunde Larrondo, Ainhoa Iturbe, Jon Josu Uribarren, Jon Iñaki Gojenola, Maite Garamendi, Iñaki Goigogana, Isaias Gezuraga,

Begoña Abaroa, Maria Jesus Garcia, Joseba Markuerkiaga, Koldo Leniz, Juan Manu Ugartetxea, Jose Maria Arriola, Lola Larrazabal, Ramón Pineda, Maria Luisa Ceniga, Jose Luis de la Torre, Koldo San Sebastian, Urtzi Iriondo...



BARKORA  
MARIÑELAK!

SURSUM CORDA  
GORA BIHOTZAK!!!

ANTERON TXAMARROTIA  
SINGERREN BIBOTIA...